



GOIZUETAKO UDALA

GOIZUETAKO UDALAREN ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOAK.

Kontratu honen objektua Goizuetako Udalaren eraikin publikoen garbiketa da. Ondorengo eraikinek osatzen dute kontratuaren objektua: Herriko Etxea, Osasun etxea, Guardiako osasun langileen apartamendua, Komon publikoak eta Iriartenea eraikia.

1. HERRIKO ETXEA

- Kokapena: Herriko plaza, 4
- Deskribapena:
- lehenengo solairuan administrarien hiru bulego ditu, alkatetzako beste bat, bi komun eta egongela.
- Bigarren solairuan batzar aretoa, komuna eta Gizarte Zerbitzuetako bulegoa eta biltegia.
- Hirugarren solairuan (ganbaran) erabilera anitzetako areto bat.
- Solairu guztietarako igogailua
-

2. OSASUN ETXEA

- Kokapena: Herriko plaza, 4 zenbakia, beheko solairua.
- Deskribapena: arreta egongela, 3 kontsultategi eta komun bat ditu.

3. GUARDIAKO OSASUN LANGILEEN APARTAMENDUA

- Kokapena: Herriko plaza, 4 zenbakia, lehenengo solairua.
- Deskribapena: sualde-egongela, bi logela eta komun bat ditu.

4. KOMON PUBLIKOAK


- Kokapena: Kale Nagusia, 27
- Deskribapena: Sarrera eta komuna.



GOIZUETAKO UDALA

5. IRIARTENEA ERAIKIA

- Kokapena: Kale Nagusia, 27
- Deskribapena:
- Lehenengo solairuan, bi bilkura gela eta komona



GOIZUETAKO UDALA


GARBITASUNENKOBETEBEHARRAK

Kontratuaren barnean aipaturiko lokal horiek garbitasuneko egoera on batean mantentzea sartzen dela ulerturik, ezinbestekoak dira honako obligazio hauek:

1.-Herriko Etxearen garbiketa:

Herriko Etxearen gutxieneko garbitasun lanak ondorengoak dira:

GARBIKETA	EGUNERO	ASTEAN BEHIN	BI ASTETIK BEHIN	HILEAN BEHIN	BI HILABETETIK BEHIN
BULEGOAK ETA ALKATETZAKO GELA.Lehenengo solairua	Erratza edo mopa pasa, hautsa kendu mostradore altzari eta koskatan, zapia pasatuz, dagokion produktu egokiarekin, zakarrontziak hustu			Fregatu, egurra garbitzeko produkturen bat erabiliz. ONGI ESKURRITU	Leihoak eta leihoetako kristalak eta , barrengo kristal haundiak garbitu
KOMONAK Lehenengo solairua	Erratza pasa, taza eta lababoa garbitu eta fregatu.				Azulejok garbitu
BATZAR ARETOA. Bigarren solairua			Erratza edo mopa pasa, hautsak kendu		Leihoak eta leihoetako kristalak eta barrengo kristal haundiak garbitu
KOMONA. 2. solairua		Erratza pasa taza eta lababoa garbitu eta fregatu			Kristalak eta azulejok garbitu
Gizarte Zerbitzuetako bulegoa		Erratza edo mopa pasa, hautsa kendu altzari eta koskatan, zapia pasatuz, dagokion produktu			Leihoak eta leihoetako kristalak eta barrengo kristal haundiak garbitu



GOIZUETAKO UDALA


Arreta gela eta gainontzeko espazioa		egokiarekin, zakarrontziak hustu			Leihoak eta leihoetako kristalak
Biltegia		-Mopakin edo erratzakin lurreko hautsa kendu, eta hautsa kendu altzariei zapia pasatuz, dagokion produkto egokiarekin. Zakarrontziak hustu		Erratza edo mopa pasa hautsak kendu	Leihoak eta leihoetako kristalak
GANBARA.3. solairua				Erratza edo mopa pasa hautsak kendu mahai, leiho koskak eta barandilatan. Fregatu ONGI ESKURRITUZ	Leihoak eta leihoetako kristalak garbitu
ESKAILERAK	Lehengo solairura erratza pasa	Goitik behera erratza pasa hautsa kendu barandila tartetan eta fregatu, ONGI ESKURRITUZ			Leihoak eta leihoetako kristalak garbitu eta ateetako kristal ttikik ere bai.
Igogailua	Garbitu	Barrendik garbitu, lurra, ateak, espilua		Kanpoko atea garbitu	

Ordutegia: Udaletxeko langileen ordutegia 8:00-15:30 bitartean da. Garbitasuna 16.00tatik aurrea egin beharko da.



GOIZUETAKO UDALA

- Egurra garbitzeko produktu egokia erabiliko da, beti ongi eskurrituz egurra ez kaltetzeko
- Komonak garbitzeko lixiba erabiliko da.
- Ganbaran ekintzaren bat antolatu ezkerro, aurretik garbituta egon behar du.



GOIZUETAKO UDALA

2.- Osasun Etxearen garbiketeta

Osasun Etxearen gutxieneko garbitasun lanak ondorengoak dira:

GARBIKETA	EGUNERO	ASTEAN BEHIN	HIRU BEHIN	HILABETETIK
KONTSULTATEGIAK	-Altzariak, entzimerak eta apalak garbitu beharko dira, zapia pasatuz, ura eta xaboi bustiarekin. Zapi busti batekin aklatatu beharko da ondoren. -Kamilla, marmolezko superfiziek eta ateetako manillak ura eta %10 lixibarekin garbitu. -Mopakin lurreko hautsa garbitu. -Lurreko solairua ura, xaboia eta lixiba pixka batekin garbitu, fregona ongi eskurrituta pasatu. Leiho guztiak ireki dena ondo lehortu arte eta gero itxi. -Mopakin lurreko hautsa garbitu. -Lurreko solairua ura, xaboia eta lixiba pixka batekin garbitu, fregona ongi eskurrituta pasatu. Leiho guztiak ireki dena ondo lehortu arte eta gero itxi.	Mahiak eta egurrezko superfiziea ura xaboiarekin garbitu, %70ur alkoholarekin nahasia, eta aklatatu.	-Leihoetako kristalak eta persianak garbitu.	-Leihoetako kristalak, koskak eta persianak garbitu.
ARRETA EGONGELA	-Mopakin lurreko hautsa garbitu. -Lurreko solairua ura, xaboia eta lixiba pixka batekin garbitu, fregona ongi eskurrituta pasatu. Leiho guztiak ireki dena ondo lehortu arte eta gero itxi.		-Leihoetako kristalak, koskak eta persianak garbitu.	
KOMUNAK	-Komunak eta lababoa: zapia bustia ura eta %10 lixibarekin pasatu egunero.			

Ordutegia: Osasun Etxean Lehen Mailako Osasun Arreta ematen da 8:00-15:30 bitartean. Garbitasuna ordutegi honetatik kanpo egin beharko da.




GOIZUETAKO UDALA

3 – Guardiako Osasun Langileen apartamenduaren garbiketa

Guardiako Osasun Langileen apartamenduaren bulegoen gutxieneko garbitasun lanak ondorengoak dira:

GARBIKETA	ASTEAN BEHIN	BI HILABETETIK BEHIN
SUKALDE-EGONGELA	-Altzariak eta apalak garbitu beharko dira, zapia pasatuz, ura eta xaboi bustiarekin. Zapi busti batekin aklaratu beharko da ondoren. -Mopakin lurreko hautsa garbitu. -Lurreko solairua ura, xaboa eta lixiba pixka batekin garbitu, fregona ongi eskurrituta pasatu. Leiho guztiak ireki dena ondo lehortu arte eta gero itxi.	-Leihoetako kristalak.
LOGELAK	-Altzariak eta apalak garbitu beharko dira, zapia pasatuz, dagokion produktu egokiarekin. -Mopakin lurreko hautsa garbitu. -Lurreko solairua fregatu produktu egokiarekin, fregona ongi eskurrituta pasatu. Leiho guztiak ireki dena ondo lehortu arte eta gero itxi.	-Leihoetako kristalak.
KOMUNA	-Komunak eta lababoa: zapia bustia ura eta %10 lixibarekin pasatu egunero.	

Ordutegia: Apartamentu hau 15.00ak baino lehen garbitua egon beharko du.




GOIZUETAKO UDALA

4.- Komen Publikoen garbiketa

GARBIKETA	EGUNERO	ASTEAN BEHIN	HIRU HILABETETIK BEHIN
Sarrera eta Komonak	Erratza pasa, taza eta lababoa garbitu eta fregatu %10 lixibarekin astelehenetik ostiralera		Azulejok garbitu eta leihoak-kristalak garbitu

5.- Tifanitxo eraikiaren garbiketa

GARBIKETA	EGUNERO	ASTEAN BEHIN	HIRU HILABETETIK BEHIN
Eskailerak eta pasiluak		Goitik behera erratza pasa hautsa kendu	
Barreneko komonak		Erratza pasa, taza eta lababoa garbitu eta fregatu. ONGI ESKURRITU	Azulejok garbitu
1.go Solairuko ezkerreko bi bulegoak		Erratza edo mopa pasa, hautsa kendu altzari eta koskatan, zapia pasatuz, dagokion produktu egokiarekin, zakarrontziak hustu	Leihoak eta kristalak garbitu
ERAIKINEKO LEIHOAK (Eskaileratakoak, 1go solairuko bulegotakok, eta eskulanetako aretokoak)			Leihoak eta kristalak garbitu



GOIZUETAKO UDALA

ERANSKINA

Esleituaren kontura izango dira garbiketarako behar diren produktu, tresna eta erabilgailuak (berak ekarri behariko ditu eta berak ordainduta).

Ur hornikuntza, argia eta indar elektrikoa, eskuak garbitzeko xaboia, komoneko papera eta eskuak lehortzeko papera Udalaren kontura izango dira, salbu Guardiako Osasun Langileen apartamendukoa eta Osasun Etxekoa

Garbiketa zerbitzu kontratu honen objektu diren eraiki guztietan, xaboia, komoneko papera eta paperezko eskuoihalak birjartzea esleipendunaren ardura izango da.

Udalak ezarriko du materiala eta tresneria gordetzeko lekua.

DILIGENTZIA: Ziurtatzeko baldintza teknikoen plegu hau 2023ko martxoaren 28ko Alkatearen Ebazpen bidez onartu da.

ALKATEAORDEA

Alaitz Eskudero Bergara

IDAZKARIA

Miriam Arozena San Miguel



